


Ihesi

Euskal Herria ezagutzuz

TESTUA: SUSTRAI COLINA
ARGAZKIAK: GAIZKA IROZ

Bidea begiekin egiten denetik



Baiona (Lapurdi)

Oinez ezagutzen da hiri bat ongien. Oinez eta galtzeko beldurrik gabe. Kale kantoira iristeke buelta hartzen duenak nekez egingo du aurrejuzkuez harago. Ihesi doanak, ordea, ez dauka aurreiritzirik, bost axola zaio Baiona Ttipia ala Baiona Handia, Errobi ala Aturri, Zup-en ala Marrak-en egon... Ihesi doanak badaki ibiliko idiliko bihurtzen, badaki begiekin egiten dela bidea.

Begientzako egin du bidea Baionak. Lekutan daude 80ko hamarkadako etxebizitza hilak, pikutan parke utziak, detaile ñimiñoena lerrokatu du denborak. Restaurazioa deitzen diote batzuek, modernismoa besteek, baina apenas geratzen den molde berrira apaindu gabeko etxerik, apenas begiak mintzeko moduko parajerik. “Kaleak museo eta museoak kale” arbuiaitzen dute karrikagiroaren nostalgikoek.

Alabaina, aski da udaletzeko plazatik bi pausotara dagoen merkatura sartzea Baiona herri bizi dela oharrezko. Negozio herria. Ez da kasualitatez inguru zabaleko erreferente ekonomikoa. Ez ziren alferrik geratu juduak behinola. Orduetik da sonatua Baionako txokolatea. Horregatik etortzen da espreski jendea merkatutik Baiona Handirako harbide batean dagoen Casenave-enean txokolate bat hartzera. Katedral oro da ederra goa eztarria gozatuta.

Katedrala da hiriarren ikur nagusietako bat. XIII.mendean eraikia aitzinako katedrala erromanikoaren oinarrietan, frantsesen estilo gotikoaren zabalkundean garrantzitsua izan da oso, Santiago bideko ezinbesteko geldialdia izaki. Baionako puntu gehienetatik ageri, hiriarren bihotza jotzen dute askok. Urteak joan urteak etorri beti taupa eta taupa, iragana erakutsiz baina etorkizuna atzean utziz.

Museoetatik Baiona Ttipira

Antzekoa da Baionako beste bi museo handi eta ezagunenen asmoa. Nola egin aurrera atzera begiratuta? Erantzunik ezak hamalau urteko itxiera ekarri dio Euskal Museoari, ateak indarberrituta zabaldu dituen arren. Frantziar estatuko museo etnografiko zaharrena Argialde izeneko patio baten inguruan errotzen da, eta, euskal jokoan, jantzien, ohituren, erlijioaren, zein herrikoitasunaren inguruko kolekzio eta erakusketek ematen diote izenari izana.

Bonnat museoak ere izanari zor dio izena. III. Errepublikako lehendakariaren portretista ofiziala zen Leon Bonnat Baionako semea. Bere obrek fama baino diru gehiago eman zitoten arren, 400 pintura, 1800 marrazki, eta 600 eskulturako kolekzioa osatu zuen handik eta hemendik, herriari egindako emaitza propio eraikitako museoare-



Goian, Herriko Etxea eta antzokia, Aturri ibaiko uretan islatuta. Eskuinean, gaztelu zaharra.

kin eskertu ziotelarik. Esker oneko museo, beraz. Esker onekoa Bonnatetikiko, eta esker onekoa museo bizi eta aldakorrek atsegin dituztenekiko.

Bonnat museotik irtenda sartu gara Baiona Ttipian. San Andres plazaren eta ibaiaren artean preso, alde zahar bat baino gehiago dela somatzen zaie espaloiei. Istorioren istorio pertsonen sortutako historia dario Baionako auzo famatu eta euskaldunenari. Gaueko ibilerengatik ezagutzen dute gehienek, denborak ezabatu ez dituen muralengatik besteek. Hotzikara bat sentitzen duzu *Monbar*-en aurretik pasatzean, gauzak ez direla askorik aldatu frogatzen dizu kalean behera datorren manifestazioak. Orduetik hona, ostegunero-ostegunero ospatuko zen pilota jaialdia San Andres trinkete berezian. Hiletak hileta eta gose grebak gose greba, lehengo tokian dago San Andres eliza. Hitzek ez dute gezurrik esaten. Itxura da itxuraldaketek aldatzen duten bakarra.

Eliza pareko gaztelua da erabat itxuraldatuta dagoena. 1460an eraikia, justu Ehun Urteko Gerraren ostean, erregeak baionarrenganako zeukan mesfidantza islatzen du. Ez da ahaztu behar orduantxe itzuli zela Frantziar estatura Baiona, ingelesaren menpeko hiru menderen ondoren. Turista ingelesak dira egun harriesietan barna paseoa doazenak.



Udalaren etxea baino gehiago

Turista ingelesak gaztelu berrian utzi, Baiona Ttipia zeharkatu, eta Herriko Etxeko plazara arribatu gara. Gutxi izango dira udaletxea, ostatu sonatu bi, eta herriko antzoki nagusia eraikin berean aterpetzen dituzten herriak. Gutxi plaza hori ikusi, eta festen zabaltze ekitaldian izaten den jende itsasoa irudikatuko dutenak. Antipodetan baitira eguneroko Baiona eta festetakoa. Nahikoa da Leon erregeak hiriko gakoak balkoitik behera botatzea gehiegikerien zerraila irekitzeko. Iruñeko San Ferminen kopia txar bat

Merke-saltzea

Dirua diru denetik txanponetan neurtzen dira hiriak. Biztanleria, eskaintza kulturala, laguntza sozialak, ohiturak, edo segurtasuna, amua eta karnata baino ez dira euroen arrantzan. Ekonomia munduan nor izan nahi duenak portu eraginkor bat, merkatal ganbara artikulatu bat, prezio lehiakorrak, eta komertzio sare zabal bat zor dizkio bere buruari. Aspaldi kitatu zituen zor horiek Baionak. Aspalditik du bere armen eta xarmen berri.

Baionaren armen eta xarmen nahasketa bat da urtero herriko festen bezperetan ospatzen den merke-saltze edo braderia. Asteartez Baiona handi eta zahar-reen, asteazkenez San Espiritu auzoan, karrikak saltokiz eta eroslez betetzen dira. Edozer aurkitu daiteke bertan, eta ia edozer merke.

izango da batzuentzat, galdu ezinezko urteko hitzordua beste askorentzat, baina bistan da bere jaiak Pariseko metroan promozionatzen dituenak esku artean ezohiko harribitxi bat daukala sinisten duela. Zer harribitxi mota da, ordea, segurtasunari bere aurrekontuaren %70a eskaintzen diona?

Pena da. Baionak badakielako festa egiten. Badaki kalera irten eta bertan ikusten duenarekin pizten, pozten. Ikusi besterik ez dago, urtero-urtero, ekainaren 21ean Musikaren Egunaren

karietara sortzen den gau magikoa. Hiriaren bazter guztiak janzen dira musikaz, kantuz eta dantzaz. Kultura arnasten da estilo eta jatorri ezberdinen bilgune izan nahi duen eszenan. Hiri kulturala baita Baiona. Kultura elitistaren zaleegia agian, baina ezin aipatu gabe utzi antzerki programazio aberatsak edo jazzaldia bezalako apustuek hiriari ematen dioten xarma.

Alta, Baionan bada zezenketa eta adierazpen artistikoei gailentzen zaien kultura bat: errugbiaren kultura. Bia-

rritzarren etsai amorratu, bereziak dira partida egunak Baionan. Ez du inork galdu nahi bere taldearen garai-pena. Kaleko marmarioak, ostatueta-ko apainketa zuri-urdirak, txarangen “pakito txokolatero”-ak... Ez ditu klubak 103 urte alferrik bete. Profesionalizatzeko pausoa kontrako ezta-rritik joan bazitzaion ere, goren mailan dabil berriro, sekula bizkarrik eman ez dion herriaren loriarako.

Udaletxeko plazatik merkatura itzuli gara berriro. Badakigu, ez garela bazter auzoetan ibili. Badakigu, San Espiritu bezalako auzoek merezi dutela aipamena. Aipamen soil bat, tren geltokia bertan dagoela esateko besterik ez bada ere. Baina ez, tripa-zorrien martxan egin dugu ogi-bidea. Urdaiazpikoa geneukan merkatuan zain. Baionako urdaiazpikoa.

Baionako portutik komertzializatzen zelako hartu zuen “Baionako urdaiazpiko” izena, gustu justua Aturri inguruko klimari zor badio ere. Zorrak gorabehera, produktu zaindu eta labelduna da 1998ko urriaren 7tik. Pentsa, urteroko feria ospetsuaz gain museoa ere jarri diote. Hori bai, ez pentsa urdaiazpiko txarra delako bukatzen duenik museoan. Nahikoa da behin probatzea kale batzuei falta zaien gatza non galdu den ohartzeko. Nahikoa, jakiek hiri baten izenaren zabalkundean duten eraginaz ohartzeko.

“Nahikoa, kito” izan da jaten hasi eta esan duguna. Esan genezakeen Pirinioen oinetan dagoen 44.300 biztanleko hiria dela Baiona. Esan genezakeen Angelu eta Biarritzekin batera BAB hirigune jendetsua osatzen duela. Esan genezakeen hiri txikitik baino gehiago duela herri handitik. Esan genezakeen



Pannecau, poteo karrika ospetsua.



Katedrala da hiriaren ikurretako bat.



Hiri bizia da Baiona.
Argazkian, Génie zubia.

Non lo

Mercure hotela
Jean Rostand etorbidea.
Tel: 05 59 52 84 44.

Adour hotela
13, Santa Ursula plaza.
Tel: 05 59 55 11 31.

Basque hotela
Paul Bert plaza.
4, Lisses karrika.
Tel: 05 59 59 08 02.

Non jan

Talotegia
10, Tonneliers karrika.
Tel: 05 59 59 43 29.

Sagarmuin sagardotegia
34, Allées Marines.
Tel: 05 59 59 11 03.

Moderne trinketea
60, Dubroçq etorbidea.
Tel: 05 59 59 05 22.

Miura jatetxea
24, Marengo karrika.
Tel: 05 59 59 49 89.

Informazio baliagarria

Udaletxea
Bernède karrika.
Tel: 05 59 46 60 40
www.bayonne.fr.

Turismo bulegoa
Euskaldunen plaza.
Tel: 08 20 42 64 64
www.bayonne-tourisme.com.

Aturri eta Errobiren itsasoratzearen testigu den portua polo ekonomiko-industrial garrantzitsua dela. Baina zergatik? Erreportaje bat irakurrita hiri bat ezagutu nahi duenak kale kantoira iristeko buelta hartzen duenak baino aurreiritzi gehiago dauka. Eta hiriak, oinez ezagutzen dira ongien. Oinez, eta galtzeko beldurrik gabe. ■

G P U N T U A

IPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2007



www.gpuntua.com

FINAL-LAUDENAK:



Urriak 27, larunbata

EIBAR

Coliseo Antzokia

18:00etan

Amaia Agirre, Iker Zubeldia, Iñaki Zelala, Arkaitz Olartzabal "Xamoa", Ainhoa Agirreazaldegui, Hodei Iruretagoiena.



Urriak 28, igandea

ZUMAIA

Maria eta Jose Ikastetxea

17:00etan

Ekaitz Goikoetxea, Aitor Sarriegi, Jokin Uranga, Bixente Gorostidi, Iñigo Manzisidor "Mantxi", Jose Luis Urdangarin.

Laguntzailea:



ARGIA